



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroak 2

Vitoria-Gasteiz, 2 de noviembre de 2022

Lana eta Enplegua

LAN ETA ENPLEGU SAILAK 1,3 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU LOGISTIKAKO ETA GARRAIOKO PRESTAKUNTZARA

- **Sektore estrategikoa da, eta Gasteizko Udalari eta Arabako Foru Aldundiari emandako dirulaguntza banaren bidez gauzatuko da**

Lan eta Enplegu Sailak 1,3 milioi euro bideratuko ditu logistikaren eta garraioaren arloko prestakuntzara. Sektore hori estrategikoa da Euskal Autonomia Erkidegorako, eta trantsizio berriek eragindako aldaketetara egokitutako langile kualifikatuak beharko ditu. Gasteizko Udalari eta Arabako Foru Aldundiari hurrengo hilabeteetan emango zaien dirulaguntza banaren bidez gauzatuko da.

Idoia Mendia Lehendakariordeak eta Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Vitoria-Gasteizko Udalari milioi bat euro eta Arabako Foru Aldundiari 300.000 euro esleitzea onartu du, logistikaren eta garraioaren eremuan prestakuntza-plana eta prestakuntza-instalazioak hobetzeko proiektua ezartzeko.

2020-2024 legegintzaldiko programaren esparruan, Mendiak zuzentzen duen Saila ekimen ugari bultzatzen ari da pertsona landun eta langabeentzako enplegua sustatzeko. Programa horiek pertsonen eta enpresen beharrei erantzuten diete, lehenengoen enplegarritasuna eta jarduera ekonomikoen lehiakortasuna areagotzeko, kualifikazioa hobetuz, enpleguari eusten lagunduz eta kontrataziorako laguntzak emanez.

Pandemian, logistika eta garraioa izan ziren biztanleriaren oinarritzko premiak asetzen eta jarduera ekonomikoari eta enpleguari eusten gehien lagundu zuten sektoreetako bat. 2021ean susperraldia hasi ondoren, sektore horrek berriro erakutsi du ekonomiaren funtzionamendu orokorrerako duen balio estrategikoa eta kritikoa, eta epe labur eta ertainean enplegu-eskaera handiko sektore gisa eratu da. Gaur egun, sektore hori eraldaketa garrantzitsuak bizitzen ari da, garraio multimodalaren hedapenaren, digitalizazioaren eta teknologia berrien ondorioz, bai eta hornidura-kateen eskakizun berrien, merkataritza elektronikoen hazkundeari lotutako kontsumo-patroien aldaketaren eta energia- eta klima-jasangarritasunaren bilaketaren ondorioz ere.

Aldaketa horien ondorioz, gero eta langile kualifikatuagoak eta prestakuntza espezifikoak duten profil profesional berriak behar izan dira, ingurune logistikoko teknologia eta lan egiteko modu berriak aplikatzeko gai direnak, eta prestakuntza arautuaren eta lanerako prestakuntzaren egungo egiturek oraindik ez dute horri erantzuten jakin. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoa leku pribilegiatuan dago jarduera logistikoetarako komunikazio-korapilo gisa, eta enpresa eta ekipamendu logistiko handiak ditu.

Horregatik, Lan eta Enplegu Sailak beharrezkotzat jotzen du sektoreko langileen lanbide-kualifikazioa hobetzen laguntzea, logistikaren eta garraioaren esparruan prestakuntza-instalazioak hobetzeko proiektu bat eta prestakuntza-plan bat diruz lagunduz. Proiektu hau Arabako Ganberak egindako prestakuntza-beharren azterlan batean oinarritzen da, sektorearen bilakaerari egokituta, eta kalitatezko prestakuntza-planak proposatu behar ditu, trantsizio digitalak, energetiko-klimatikoak eta demografikoak planteatutako erronkekin bat datozenak.

Dirulaguntza hauen bidez Logistika eta Garraioko prestakuntza-plan bat lortuko da, sektorearen beharrei lotua, datozen urteetako garapen-proiektzioan, Gasteizko Udaleko Ignacio Ellacuría/CETIC udal-prestakuntzako zentroan, Arabako lurralde osoko pertsonak kualifikatu ahal izateko. Era berean, zentro horretako instalazioak hobetu egingo dira, prestakuntza-planera egokitzeko.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKADI ETORKIZUNeko ESPAINIAKO ESPAZIO AGENTZIAREN EGOITZA IZATEKO HAUTAGAI IZANGO DA

- Aurreikuspenen arabera, 2023an abiatuko du bere jarduera, programa espazialearako 500 milioi euroko hasierako aurrekontuarekin
- Agentzia berriaren egoitza hartzeko egokia da Euskadi, industria espazial garrantzitsua eta ekosistema zientifiko teknologiko sendoa dituelako

Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak gaur aurkeztu du, Gobernu Kontseiluan, Espainiako etorkizuneko Espazio Agentzia ezartzeko Euskadiren hautagaitzaren egokitasuna. Eusko Jaurlaritzak babestu du hautagaitza, eta babes hori hautagai-zerrendaren aurkezpen ofizialean sartuko da, hilaren 7an amaituko baita epea.

Espazio Agentziak Europako Espazio Agentziarekin (ESA) koordinatuta lan egingo du, eta hainbat erakunde koordinatzeaz eta nazioarteko lankidetzaz bateratzeaz arduratuko da. Aurreikuspenen arabera, 2023an hasiko da lanean, eta 500 milioi euro inguruko aurrekontua izango du programa espazialean.

Agentzia berriaren helburu orokorrak honako hauek izango dira, besteak beste:

- Ikerketa sustatu, gauzatu eta garatzea,
- Garapen teknologikoa eta berrikuntza espazioaren eremuan
- Segurtasuna eta defentsa
- Mugaz harandiko eragiketak
- Sailerako eskumenak garatzeko eta sateliteek emandako datuak erabiltzeko satelite-aplikazioak
- Sistema satelitalen diseinuarekin, eraikuntzarekin, eragiketarekin eta mantentzearekin lotutako industriaren eragin teknologikoa eta ekonomikoa.
- Espazio-industria indartzea
- Europako Espazio Agentziarekin eta Europar Batasunaren eremuan garatzen diren politika eta programa espazialekin koordinatzea.
- Baliabide publikoen esleipen lehiakorra eta eraginkorra
- Finantzatutako jardueren eta horien eraginaren jarraipena egitea.
- I+G+b politikak gauzatzeko ekintzak edo ekimenak planifikatzeko aholkularitza.

Sektore espaziala Euskadin

Eusko Jaurlaritzak apustu sendoa egin du sektore aeroespazialaren alde, eta horren erakusgarri da [ITPren kapitalaren % 6 erosi](#) berri izana, Finkatuz

Funtsaren bidez, edo [Airbusekin hitzarmena](#) sinatu izana iraunkortasuna eta digitalizazioa bezalako arloetan elkarrekin lan egiteko.

Euskadik, gainera, lehen mailako gaitasun eta azpiegitura zientifiko-teknologiko garrantzitsuak ditu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen bidez, batez ere Basque Research Technology Alliance (BRTA) osatzen duten zentroak nabarmenduz.

70 satelitek eta espazio-ibilgailuk baino gehiagok daramate euskal teknologia, eta kopuru hori handitu egiten da urtero; beraz, euskal espazio-sektoreak garrantzi handia du. Zifretan egindako translazioaren arabera, euskal espazio-industria hasiberriaren edo enbrioi-industriaren negozio-bolumena, berez ez oso handia, baina duela hamar urteko 18,4 milioiekin alderatuz gero, **euskal espazio-sektoreak hirukoiztu egin du bere balioa, eta bikoiztu egin du bere jarduera osoa edo zati bat espazio-sektorera bideratzen duten enpresen kopurua.**

HEGAN Euskadiko Aeronautika eta Espazioko Kluster Elkarteak ordezkaten du euskal espazio-sektorea. Elkarte hori 68 kidek osatzen dute, eta balio aeroespazialeko kate ia osoan kokatzen dira. Bazkideen artean 4 Tier1 daude, 48 industria-konpainia, 6 zentro teknologiko, 5 unibertsitate eta 5 aliatu-kluster daude. Gaur egun, HEGANeko kideek 169 instalazio dituzte mundu osoan zehar, 83 Euskadin, 56 Espainian eta 30 kokapen kanpoan (Alemania, Brasil, Txina, AEB, India, Malta, Mexiko, Polonia, Portugal, Erresuma Batua eta Errumania). Bazkideek 1.867 milioi euroko fakturazio agregatua sortu zuten 2021ean munduaren inguruko lantegi guztietan, 2020an 1.874 izan ziren bitartean. Sectoreak 14.000 pertsona baino gehiago enplegatzen ditu munduan dituen lantegi guztietan.

I+G+b inbertsioari dagokionez, 117 milioi eurora iritsi zen 2021ean (horietatik % 75 baino gehiago autofinantzaketari dagozkio) eta esportazioak 1.371 milioi eurokoak izan ziren, hau da, salmenta guztien % 73,4.

HEGAN clusterraz gai, INEUSTAR, Euskadin egoitza duen Espainiako Zientzia Industriaren Elkarteak, espazioarekin lotutako jarduera ere badu. Espazioaren Zientziak, hain zuzen ere, atmosferarik ezak edo atmosfera exotikoek bizitzarako irudikatzen dituzten arazo oso desberdinak aztertzen eta konpontzen saiatzen dira. Horregatik, Ineustarrek, teleskopio handien, erradioantenen, sateliteetarako tresnen eta ekipoen eta antzeko aplikazioen merkatuan gaitasunak dituzten euskal enpresetako batzuk ere ordezkaten ditu.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK INGURUMEN-HEZKUNTZA BULTZATUKO DU HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREKIN ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN BATERA

- **Gaur onartutako dekretuak aurreikusten du, besteak beste, iraunkortasunerako ingurumen-hezkuntzari buruzko berrikuntza- eta gaikuntza-plataforma bat abian jartzea, Ikastetxe jasangarria zigilua eguneratzea eta gai horri buruzko kanal digital bat sortzea**

Eusko Jaurlaritzak dekretu berri bat onartu du gaur, Euskadin iraunkortasunerako ingurumen-hezkuntza sustatu eta sendotzeko, esparru horretan lan egiten duten eragile guztien eskutik, iraunkortasunaren kultura berri baterantz eta osasunaren sustapenerantz aurrera egiteko.

Dekretu honek antolamendu- eta hezkuntza-kalitateko eredu berrien garapenean jartzen du arreta, hezkuntza ez-formalaren eremuari lehentasuna emanez, herritarrek ingurumena babesteko eta kontserbatzeko duten erantzunkidetasunean lagunduko dutenak, eta hori guztia, larrialdi klimatikoaren garaian benetako ekintza eraldatzaile oihartzun soziala lortzeko.

Dekretua sei ildo estrategikoren inguruan egituratzen da: Hezkuntza Agenda 2030 bultzatzea eta «Ikastetxe iraunkorra» zigilua eguneratzea; iraunkortasunerako ingurumen-hezkuntzari buruzko berrikuntza-, prestakuntza- eta gaikuntza-plataforma bat sortzea; ingurumen-hezkuntzari buruzko kanal digital espezifiko bat sortzea; hezkuntza-komunitateak parte hartzeko tresnak garatzea; ikastetxe jasangarrien hedapena; eta Hezkuntza Sailak bultzatutako hezkuntza-planekin konektatzea eta lerrokatzea.

Dekretua bat dator Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 2015eko irailaren 25ean onartutako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin. Haren helburua da giza garapena bultzatzea garapen iraunkorraren hiru dimentsioetan: ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren eremuan.

Berrikuntza eta trebakuntza plataforma

2018an, Eusko Jaurlaritzak 2030erako Euskal Autonomia Erkidegoko Iraunkortasunerako Hezkuntza Estrategia onartu zuen, Euskadin elkarrekin bizi diren pertsona guztiak jasangarritasunaren kultura berri baterako trantsizioan inplikatzeko helburuarekin. Aurrera egin den arren, iraunkortasunerako ingurumen-hezkuntzaren txertatze-mailak badu oraindik hobekuntza tarterik, eta beharrezkoa da iraunkortasunerako ingurumen-hezkuntza curriculumean zeharka txertatzea, gaitasunen araberako ikaskuntza eta ikasgelatik kanpoko ikaskuntza sustatuz, natura-ingurunearekin harremanetan. Horrez gain, irakasleek berriazko prestakuntza behar dute ingurumen-hezkuntzaren arloan.

Horregatik, gaur onartutako dekretuak adituen eta jardunbide egokien elkartrukerako ekosistema bat sortzea aurreikusten du, gaitasunen garapena errazteko, ezagutza-komunitateak aktibatzeke eta herritarrak inplikatzeke.

Ekosistema hori berrikuntzaren, trebakuntzaren eta ezagutzaren kudeaketaren plataforma batean gauzatzen da, eta, besteak beste, iraunkortasunaren arloan lan egiten duten eragileen artean sinergiak sortzea eta esperientziak trukatea ahalbidetuko du: administrazioa, unibertsitateak, hezkuntza-komunitatea, berrikuntza- eta ikerketa-zentroak, erakunde ekologistak edo beste erakunde eta gizarte-eragile batzuk.

Ikastetxe Iraunkorraren zigilua

Dekretu hau onartzearekin batera, orain arte Eskola Jasangarrien ziurtagiria izan denak beste zigilu baterantz egiten du. Zigilu horrek ikastetxe jasangarri gisa egiaztatuko du, ikastetxeek 2030erako Iraunkortasunerako Ingurumen Hezkuntzako Agendaren esparruan garatutako jarduera eta ekintza iraunkorraren ebidentziak ebaluatuz.

Iraupena 2030. urtera arte luzatuko da. Prozedura sinplifikatu bat ezarriko da *Eskola Txiki* gisa katalogatutako ikastetxeentzat, hau da, landa-guneetan edo biztanleria-dentsitate baxuko guneetan kokatutako ikastetxeentzat.

Herritarren sentsibilizazioa

Azkenik, jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzaren arloan erakunde laguntzaileen erregistro bat sortzea eta kanal digital bat abian jartzea ere aurreikusten du dekretuak. Kanal digital horretan, gaur egun Eusko Jaurlaritza bultzatzen ari den herritarrak sentsibilizatzeko hiru programak sartuko dira:

- a) AZTERKOSTA: kostaldean ingurumen-babesean aktiboki parte hartzeko programa.
- b) IBAIALDE: ibai-ingurunearen ingurumen-babesean aktiboki parte hartzeko programa.
- c) NATURA: natura-ingurunearen ingurumen-babesean aktiboki parte hartzeko programa.

Urtero «Emanaldia» ekitaldia egingo da, eta bertan programaren jardueretan aurkeztutako lanak aintzatetsiko dira.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK 2.413.071 € GEHITU DIZKIO ARLO ESTRATEGIKOETAKO IKERKETA KOLABORATIBORAKO LAGUNTZA-PROGRAMARI, ELKARTEK IZENEKOARI

Gobernu Kontseiluak onartu du 2.413.071,00 eurotan handitzea ELKARTEK programa, arlo estrategikoetan lankidetzak-ikerketarako laguntzak emateko dena. Horrela, aurten, laguntza horiek 44.413.071 eurokoak dira.

Laguntza horiek Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritzak sustatu eta bideratzen ditu, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak ebazten ditu, bi fase desberdinetan urtariletik aurrera. Bigarrena irailetik abian dago, eta horrela, aurrekontua handituta, proiektu gehiagotara iritsi ahal izango da. Aurten, proiektu horiek nabarmentzen dira Zientzia Teknologiko eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES) eragileek lankidetzan egindako ikerketari emandako laguntzagatik, hurrengo hiru enpresa-eremu handitan:

1. Elkarlaneko Funtsezko Ikerketa-proiektuak. ZTBESeko agenteek garatutako proiektu estrategiko eta berritzaileak dira, baliagarriak industria adimendun, energia eta osasun arloetako ezagutzak zabaltzeko.
2. Industria-potentzial handiko Ikerketa-proiektuak. Funtsezko ikerketa orientatutako proiektuak edo ikerketa industrialekoak dira, ZTBESeko enpresetako I+G unitateek zuzenduak, trakzio-indar handikoak eta ahalmen handia dutenak merkatura iristeko.
3. Interes bereziko ekintza osagarriak. Eskaintza-eskariko bitartekaritza organismoek eta ZTBESeko zabalkunde organismoek eskusiboki garatutako eskaintza eta eskari teknologikoaren arteko bitartekaritza-proiektuak dira, besteak beste, hauek:
 - a) Prospekzio eta zaintza arloko azterlanak
 - b) I+G+B-ko proiektuetarako elkarlana eta aholkularitza bultzatzeko jarduerak
 - c) Proiektuei lotutako I+G+B-ren kudeaketa eta transferentzia
 - d) Funtsezko ikerketaren eta ikerketa industrialaren arloko proiektuei loturiko nazioartekotze jarduerak

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

BERRIKER 3,5 MILIOI EUROKO LAGUNTZAK NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA BASOGINTZA SEKTOREETAKO I+G+B JARDUERETARAKO

- **Eraginkortasuna handitzeko, lehiakortasuna hobetzeko, hazkunde jasangarriari laguntzeko eta enpresen arteko lankidetzaz sustatzeko**
- **Diruz lagunduko dira, besteak beste, langile-gastuak, azpiegiturak, patenteak eta ustiapen-gastu orokorrak**

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, azken bileran, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren Agindua onetsi du. Agindu horrek Berriker 2022 deialdiaren oinarriak arautzen ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzak ematen ditu. 3,5 milioi euroko zuzkidura dute, eta elikaduraren eta zuraren balio-kateko enpresetan praktika jasangarriari buruzko ezagutza sustatzea eta sortzea dute helburu, sektore horien epe labur eta ertaineko erronkei aurre egiteko.

Laguntza horien ildoak I+G arloetako proiektuak finantzatzera bideratuta daude, Elikadura Osasungarriaren RIS3 eremuari, Baserritik mahaira estrategiari eta I+G arloko Sailburuordetzaren planei lotuta.

Enpresen, elkarten eta enpresa-partzuergoen proiektuak bultzatuko dira, ikerketa industriala eta garapen esperimentalak sustatzeko, bai eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen proiektuak ere, ezagutza sortzeko. Hirugarren lerro batean ere kontuan hartuko dira oinarri teknologikoa duten negozio-prozesuetan berrikuntza-proiektuei laguntzea, teknologia digitalak barne, elikaduraren eta zuraren balio-kateko enpresetan ekoizteko, eraldatzeko, banatzeko edo merkaturatzeko negozio-prozesuetan.

3.500.000 euro bideratuko dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako hauek izango dira: langileen, ikertzaileen, teknikarien eta gainerako laguntzaileen gastuak, baldin eta proiektuan parte hartzen badute; tresneria- eta material-gastuak, eraikinak eta lurzatiak, kontratu-ikerketa, ezagutza teknikoak eta eskuratutako edo kanpoko iturrien lizentziatik eskuratutako patenteak, gastu orokorrak eta beste ustiapen-gastu gehigarri batzuk, proiektutik zuzenean eratorritako bidaia- eta material-kostuak, hornidurak eta antzeko produktuak barne. Baita proiektuaren zatiak azpikontratatzeko ere.

Aurkezteko epea

Pertsona fisikoek aurrez aurre zein elektronikoki aurkeztu ahal izango dituzten

eskaerak. Pertsona juridikoek, berriz, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dute eskaera. Epea hilabete batekoa izango da, agindua argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Aurrez aurreko kanala: eskaerak zuzenean aurkeztuko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bulegoetan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) edo Legean aurreikusitako edozein lekutan.

Kanal elektronikoa: eskaerak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta aurkeztuko dira: <https://www.euskadi.eus/servicios/0110308>

Eskaerak eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera aurkeztuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta.

<https://www.euskadi.eus/servicios/0110308>

Hezkuntza

MILIOI BAT EURO ESKOLA-GARRAIOKO BANAN BANAKO DIRULAGUNTZATARAKO

- **2021-2022 ikasturtean 1.758 ikasle izan ziren laguntza hauen onuradun**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, ikasleak eskolara garraiatzeko banan banako dirulaguntzak arautzen dituen Agindua. Laguntza hauek, 2022-2023 ikasturtean honako hezkuntza-maila hauetan matrikulatuta dauden ikasleei zuzenduak dira: Haur Hezkuntzan (lehen zikloko hirugarren mailan eta bigarren zikloan), Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan. Deialdi honek milioi bat euroko diru kopurua du.

Deialdi hau honako kasu hauetarako zuzentzen da: batetik, garraio eskubidea izan bai baina Hezkuntza Sailak antolatzen dituen ibilbideetara moldatu ezin diren ikasleentzat, edo bestalde, ikasleek beste erakunde batzuek antolaturiko garraio publikoa erabiltzeari egoki irizten zaion kasuetarako.

Aurreko 2021-2022 ikasturtean deialdi honen onuradun Euskadiko 1.758 ikasle izan ziren orotara: 543 ikasle Araban, 723 Gipuzkoan eta 492 Bizkaian. Hezkuntza Sailak bermatzen du, deialdi honetara bideratzen duen diru-kopuruaren bidez (milioi bat euro), baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak onartuak izango direla. Beraz, deialdiaren kopurua handitu egin daiteke, beharrezko gertatuko balitz.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Euskadiko ikastetxe publiko baten matrikulaturik dauden ikasleak (gorago aipaturiko mailetakoak), edo baita, hezkuntza-administrazioak esanda, ikastetxe pribatu batean daudenak ere.

Hezkuntza

DIRULAGUNTZA ZUZENA MUSIKALDIA 2022 EUSKADIKO MUSIKA ESKOLEN FESTARI

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Pasaiaiko Udaleri 25.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea. “Pasaia” Musika Eskolaren titular den heinean. Laguntza hori 2022ko Musikaldia festak eragindako gastuak ordaintzeko erabili beharko du Pasaiaiko Udalak.

Euskadiko ia ehun musika eskoletatik 66 batzen dituen EHME - Euskal Herriko Musika Elkarteak, bi urterik behin ospatzen du Musikaldia deritzon festa. Hainbat herritako irakasle zein ikaslerentzako bilgune ere bihurtzen den festa hau antolatzeaz musika eskola bat arduratzen da, bi urterik behin. 2022ko Musikaldiaren antolaketaz –joan zen ekainean burutu zen- “Pasaia” Udal Musika Eskola arduratu zen.

Musika Eskolen jaia bi urtean behingo jaialdia da, eta EHMEko kide diren eskolen artean txandaka antolatzen da. COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerak 2021eko edizioa bertan behera uztera behartu zuen, eta, azkenean, urte beteko atzerapenarekin ospatu da 2022an Pasaian, 2019an Alegria-Dulantzin egin zen azken edizioa baino 3 urte beranduago.

Hezkuntza Sailak gogotsu babesten ditu, bai musika eskolek egiten duten lana (egun 30.000 neska-mutil gazte ari baitira horietan musika ikasten), eta baita Musikaldia festa ere. Horregatik, jai egun hori antolatzeak sorrarazten dituen gastuen finantzaziorako ekarpena egiten du.

Hezkuntza

810.000 EURO, "5.0 IKASTETXE ADIMENDUNAK" PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN ERALDAKETA DIGITALA FINANTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, zuzeneko dirulaguntza bana ematea (405.000 euro bakoitzari) Lanbide Heziketako itunpeko bi ikastetxe bateratu hauei: CPIFP Txorierri LHIPi eta CPIFP Salesianos Deusto LHIPi. "5.0 Ikastetxe adimendunak" proiektuan parte hartzen dute biek, eta 2022an beren espazioen, ekipoen eta azpiegituren eraldaketa digitala eta jasangarria finantzatzeko erabili beharko dute laguntza.

Lanbide Heziketaren eraldaketa digitalak bilakaera berri bat ekarriko du, eraldaketa disruptiboan oinarritua; prestakuntza-eredu aurreratu berri bat, ikastetxeetan antolaketa eta egitura desberdinak dituen, ingurune digitaletan aplikatutako espazio eta sistema adimendun berriekin. Horretarako, 2022-2024 aldirako Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planak, hainbat ekintza jasotzen ditu, besteak beste, heldutasun digitaleko eredu bat garatzera bideratutakoak; heldutasun eredu horrek estaldura eman beharko die azpiegitura berriei, teknologia digitalen erabilera aurreratuko gaitasun berriei eta errendimendu handiko ikaskuntzen garapenari.

Emandako dirulaguntzak ekipamendu eta azpiegitura teknologikoki aurreratuak erostera bideratu beharko dira, bai eta ekipamendu eta azpiegitura horiek eragindako instalazio-gastuetara ere.

Eskuratutako ekipo eta azpiegiturekin, ikasgelan ikasprozesua modu digitalean eta iraunkorrean eraldatu ahal izango da ikasleekin, eta "5.0 Ikastetxe adimendun" direlakoak kudeatu ahal izango dira, honako teknologia hauek ezarriz:

- Ikasgelako teknologia digital elkarreragileak. Smartphoneak, tabletak, eramangarriak, mahai digitalak eta horma digitalak, besteak beste, software espezifikoko baten bidez elkarrekintzan dihardutenak.
- Ikasgelarako murgiltze-teknologia digitalak. Errealitate birtualeko teknologia, errealitate mistoa, errealitate fusionatua eta errealitate areagotua.
- Errendimendu handiko prestakuntzarako espazioetako sistema adimendunak.
- Azpiegitura digitalak, zerbitzariak eta switch-eak, fisikoak zein birtualak, eraldaketa digitalaren eskakizunei erantzun ahal izateko.

Diruz lagundutako jarduera hauek 2022ko irailaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean gauzatu beharko dira.

Hezkuntza

DIRULAGUNTZA ZUZENA MATERIALS PHYSICS CENTER ZENTROARI, TEKNOLOGIA KUANTIKOEN LABORATEGIA INDARTZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Materials Physics Center (MPC) bikaintasuneko ikerketa-zentroari 200.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea, Teknologia Kuantikoen laborategia indartzeko.

MPC BERC deituriko ikerketa-zentro bat da (Basque Excellence Research Center), Hezkuntza Sailari atxikia, eta bere helburuak dira materialen fisikan foro intelektual eta bikaintasunezkoa eratzea eta materialen fisikaren arloan graduondoko mailako ikerketa eta irakaskuntza-jarduerak sustatzea, egitea, laguntzea eta finantzatzea.

MPCren Nanofotonika Kuantikoko Laborategia “*Quantum nanophotonics Laboratory (QNL@D)*”, Ikerbasque Molina-Terriza irakaslearen gidaritzapean, 2018an abiatu zen, optika kuantikoaren eta nanofotonikaren arteko interfazean esperimenduak egiteko. Hau da teknologia kuantikoak aztertzen dituen Euskadiko lehen talde esperimentalak. Taldeak teknika esperimentalak garatzen ditu nanoegituren neurketa ultrazehatzak egiteko, teknologia kuantikoak erabiliz eta kuantikoki hobetutako sentsores inertzial eta magnetiko berriak eginez.

2018tik, MPCk teknologia kuantikoen puntako laborategi bat garatzea lortu du, eta horrek nazioarteko enpresa handien arreta erakarri du Euskadin garatzen ari den ikerketara. Teknologia kuantikoen laborategi hori, gainera, teknologia kuantikoetako ikertzaileentzako eta mikroskopia optikoko eta pintza optikoetako ikerketentzako tresna bihurtzen ari da.

Ekipamendu berriak eskuratzea beharrezko da, beraz, laborategiak bizkortze-prozesuan jarrai dezan, proiektu berriak abian jarrita eta lehendik dauden proiektuak finkatuta.

Hezkuntza

4,7 MILIOI EURO EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAN MENTORE DIGITALAK PRESTATZEKO

- **Laguntza hauen helburua da itunpeko ikastetxeen sarean mentore digitalak hautatu eta trebatzea**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, indarrean dagoen hezkuntza-ituna duten ikastetxeetako federazio eta elkarteei zuzeneko dirulaguntzak ematea. Ikastetxe horiek Euskal Hezkuntza Sistemaren mentoria digitaleko *#CompDigEdu* programan parte har dezaten erabili beharko dira. 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetarako zuzeneko dirulaguntza horien kopuura 4.739.416 eurokoa da.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Euskadin Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa eskaintzen duten itunpeko ikastetxeen federazio edo elkarteak.

Hezkuntzako gaitasun digitala hobetzeko *#CompDigEdu* programaren azken helburua da ikasleen konpetentzia digitala garatzea eta ikaskuntzan teknologia digitalen erabilera hobetzea. Gai horri, baina, irakasleen gaitasun digitala garatuz heltzen dio – banakakoa zein kolegiatua –, eta ikastetxeak digitalki eskumena duten hezkuntza-erakunde bihurtuz. Programa hori Next Generation funts europarez hornitzen da, eta denboran zein helburuetan bat dator Hezkuntza Sailak abian jarritako Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planarekin.

#CompDigEdu programak hiru helburu nagusi ditu:

- Ikastetxe guztiek beren hezkuntza-proiektuan integratutako Plan Digital bat izan dezaten lortzea. Plan horrek modu kolektiboan hasitako antolaketa eta ikasketa-estrategiak egituratuko ditu, ikastetxea digitalki eskumena duen hezkuntza-erakunde bihurtzeko.
- Irakasleei gaitasun digitala garatzea erraztea, ziurtatutako prestakuntza-jardueren bidez.
- Irakasleen gaitasun digitalaren maila egiaztatzea.

Helburu horiek lortzeko, garrantzi berezia hartzen du ikastetxeetako mentore gisa jardun beharko duten pertsonen taldea hautatu eta prestatzeak, bai ikastetxeko plan digitalak egin eta garatzeko, bai ikastetxe horietako irakasleen hezkuntza-gaitasun digitalari buruzko prestakuntza antolatzeak. Beraz, mentore digitalak liberatzeko eta prestatzeko erabili beharko dituzte jasotako dirulaguntzak itunpeko ikastetxeetako federazio eta elkarteek.

Sare publikoan ere bai

Irakaskuntza publikoan, aurreko ikasturtearen amaieran, mentoria digitaleko *#CompDigEdu Gelan* programan parte hartzeko deialdia egin zitzaion Haur

Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeei. Deialdiaren ebazpena eman da jada, eta 2022-2023 ikasturtearen hasieratik hautatutako mentoreak mentoretza digitaleko lanak egiten ari dira beren ikastetxean eta inguruko beste ikastetxe batzuetan. Guztira 54 mentore aukeratu dira sare publikoan.

Ikastetxe itunduetan, diruz lagundu beharreko zenbatekoa eta mentore kopurua zehazteko, sare publikoko ikastetxeei esleitutako irizpideen antzekoak erabili dira. Aholkulari baten ratioa ezarri da 300 irakasleko, eta 55.464 euroko zenbatekoa itunpeko ikastetxeen elkarte edo federazioari esleitutako aholkulari bakoitzeko, 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetako bakoitzeko. Horrela, itunpeko sarean 42 aholkulari finantzatuko dira.

Irakasle mentoreen zereginak

Aholkulari digital izendatutako pertsonak, besteak beste, honako eginkizun hauek beteko ditu esleitzen zaizkion ikastetxeetan:

- Irakasleen gaitasun digitalaren mailaren diagnostikoa egiten laguntzea
- Ikastetxeei aholku ematea Ikastetxeko Proiektu Digitala diseinatzeko eta estrategia digitala ezartzeko.
- Mentore digitalentzako prestakuntza-jarduera espezifikoetan parte hartzea.
- Ikasgelan irakatsi eta ikasteko prozesuen aldaketa metodologikoa erraztuko duten teknologia, material eta baliabide digitalen erabilera bultzatzea.
- Irakasleei irakaskuntzako gaitasun digitalak eskuratzeko eskaintzen zaien prestakuntza tutorizatzea eta dinamizatzea.
- Irakatsi eta ikasteko prozesuan hezkuntza-material eta baliabide irekiak egitea, eta horiek ikasgelan erabiltzea sustatzea.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

**GOBERNU KONTSEILUAK BAIMENA EMAN DU ALDUNDIEK 2.455.514,84
EURO JASO DITZATEN ADMINISTRAZIO ZENTRALETIK, SEXU-
INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO 24 ORDUKO ARRETA-ZENTROAK
SORTZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Foru Aldundiek Estatuko Administrazio Orokorraren funtsak jaso ahal izateko baimena sexu-indarkeriaren biktimei 24 orduz arreta integrala emateko zentroak sortzeko. Funts horiek Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren erabakiaren ondorio dira eta akordio honen bitartez 2.455.514,84 euro esleitzen zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoari, «Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren» kontura. Zenbateko hori foru-aldundien artean banatu behar da, haiek baitira sexu-indarkeriaren biktimei 24 orduko arreta integrala emateko zentroak gauzatzeko eta sortzeko eskumena duten administrazioak. Banaketa egiteko, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran hartutako Akordioan xedatutako irizpideak* erabiliko dira. Horrela, Arabak 757.451,20 euro jasoko ditu, Bizkaiak 879.143,92 euro eta Gipuzkoak 818.919,71 euro.

Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzaren 2022ko ekainaren 14ko Ebazpenak Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren Erabakia argitaratzen du, lurralde-banaketaren irizpideak onartzen dituena eta ondoriozko finantza-konpromisoak formalizatzen dituena. Foru-aldundiek, beren eskumenen esparruan proiektuak gauzatzeko dagokien erakunde diren aldetik, Berreskuratze eta Erresilientziarako Mekanismoa arautzen duen araudiak esleitzen dizkien konpromiso eta betebeharrak guztiak hartzen dituzte beren gain, beren kudeaketa-sistemari dagokion guztia barne (COFFE).

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 712.000 EURO BIDERATUKO DITU ARTE ESZENIKOEN ETA MUSIKALEN AZPIEGITURA PRIBATUAK MODERNIZATZEKO ETA MODU JASANGARRIAN KUDEATZEKO

- **Deialdia Europar Batasunak finantzaturako Next Generation EU Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan dago**

Gobernu Kontseiluak 711.527 euroko dirulaguntzen deialdia onartu du gaur, arte eszenikoen eta musikalen jarduera profesionala garatzen duten azpiegiturak modernizatzeko eta modu iraunkorrean kudeatzeko inbertsio-proiektuak finantzatzeko. Gaur onartutako deialdia Europar Batasunak finantzaturako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan dago (Next Generation EU).

Diruz lagundu daitezkeen inbertsioek honako helburu hauek bete beharko dituzte:

- Ingurumen-eraldaketa.
- Eraldaketa digitala.
- Kudeaketa hobetzea.

Dirulaguntza hauen onuradunak izaera pribatua duten eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona juridikoak izan daitezke, baldin eta ohiko jarduera arte eszenikoen eta musikaren ekoizpen edo programazio profesionalaren eremuetan egiten badute. Gainera, inbertsio-proiektuen xede diren azpiegiturek honako eremu hauetako batean edo gehiagotan jardun izana egiaztatu beharko dute:

- Zuzeneko arteen erakusketa: antzokiak, auditoriumak, zirko-karpak eta musika-aretoak.
- Saiakera eta ekoizpen eszenikoa: antzerkia, dantza, zirkua eta diziplina anitzak.
- Saiakera eta/edo musika-ekoizpena.

Dirulaguntzek ezin izango dute gastuen aurrekontu osoaren % 80 gainditu, eta ezin izango dira 150.000 eurotik gorakoak izan. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialea argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarren aldia da, Next funts europarren barruan, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak dirulaguntza hauek deitzen dituela. 2021eko deialdian zortzi proiektu lagundu ziren diruz: Asociación cultural D 8 Sorkuntza faktoria, Asociación Hacería Arteak, Azala espacio de Creación y alojamiento rural S.L., Azkuna Zentroa, Lekuona Fabrika, Garaion antzokia, Harrobia Asociación para la Innovación en Producción Escénica eta Victoria Eugenia Antzokia.

Next Generation EU

Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko helburua dute Next Generation EU funtsek. Aparteko aukera ematen dute errekupeazio-plan espezifikoak hedatzeko eta pandemiak inbertsioan eta jarduera ekonomikoan duen eraginari aurre egiteko. Helburu hori lortzeko neurriak sei zutabetan daude egituratua, eta horien artean daude, besteak beste, trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala eta hazkunde-eredu adimendun, jasangarri eta integratzaile bat, honako hauek barne hartzen dituena: kohesio ekonomikoa, enplegua, produktibitatea, lehiakortasuna, ikerketa, garapena eta berrikuntza.

Europar Batasunak berak adierazitakoa da, kultura- eta sormen-sektoreek zeregin garrantzitsua izan dezaketela susperraldi iraunkorra bermatzeko orduan, beren jardueren izaera dela eta: hazkunde azkarrekoak eta jabetza intelektualetik eta sormenetik eratorritako balio ekonomikoa dutenak. Hala ere, aldi berean onartzen da Covid-19aren krisian ezarritako gizarte-harremanetarako murrizketek ondorio ekonomiko bereziki negatiboak izan dituztela. Kulturari dagokionez bereziki zuzeneko jarduera izan da kaltetuena: arte eszenikoak eta musika, batez ere.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

883.000 EUROKO LAGUNTZA SESTAOKO INDUSTRIA ONDAREAREN ETA ITSASADARRAREN BALORIZAZIOA PROIEKTURAKO

Gobernu Kontseiluak Sestaoko udalerriri 883.000 euroko urte anitzeko dirulaguntza ematea onartu du behin betiko, aldez aurreko baldintzak aldatu ondoren. Lehentasunezko Jarduera Eremuen Planaren (ZAP) jardueren barruan dago, eta Industria Turismoa sustatzea du helburu. SESTAO BERRI, S.A. sozietateak gauzatuko ditu jarduketak, udalaren bitarteko propio gisa.

Proiektu horri esker, bisitariak hartzeko gune bat sortuko da Sestaoko Sorospen Etxean, eta interpretazio-espazio bat egokituko da Sorospen Etxean. Elementu horrek informazio turistikorako gune gisa balioko du, eta, aldi berean, bisitariak eta turistak hartzeko gune gisa. Gune horretatik aurrera, bisita-taldeengana jo ahal izango da Horno Altorra, eta bertan bisita gidatua egin ahal izango da.

Bigarren jarduera langileen etxebizitza zahar bat egokitzea izango da, XX. mendeko Sestao industrialeko bizi- eta lan-baldintzei buruzko ikuspegi integrala eskainiko duen labea bisitatzeko baliabide turistikoko osagarri gisa.

Trabajo y Empleo

EL DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO DESTINA 1,3 MILLONES DE EUROS A LA FORMACIÓN EN LOGÍSTICA Y TRANSPORTE

- **Se trata de un sector estratégico, y se va a materializar a través de una subvención al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y la Diputación Foral de Álava**

El Departamento de Trabajo y Empleo va a destinar 1,3 millones de euros a la formación en materia de logística y transporte, un sector estratégico para la Comunidad Autónoma Vasca que requiere personal cualificado adaptado a los cambios provocados por las nuevas transiciones. Se va a materializar a través de una subvención al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y a la Diputación Foral de Álava que se extenderá a Bizkaia y Gipuzkoa en los próximos meses.

A propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, el Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy asignar 1 millón de euros al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y 300.000 euros a la Diputación Foral de Álava para la implementación de un proyecto de mejora de instalaciones formativas y un plan de formación en el ámbito de la logística y el transporte.

El Departamento que dirige Mendia, en el marco del programa de legislatura 2020-2024, está impulsando un amplio elenco de iniciativas en favor de la promoción de empleo para las personas ocupadas y desempleadas. Estos programas atienden a las necesidades de las personas y de las empresas para incrementar la empleabilidad de las primeras, y la competitividad de las actividades económicas a través de la mejora de la cualificación, el apoyo al mantenimiento del empleo y las ayudas a la contratación.

Durante la pandemia, uno de los sectores que mejor contribuyeron a la cobertura de las necesidades básicas de la población y al sostenimiento de la actividad económica y el empleo fue el de la logística y el transporte. Una vez iniciada la recuperación en 2021, este sector ha vuelto a mostrar su valor estratégico y crítico para el funcionamiento general de la economía y se ha configurado como un sector de alta demanda de empleo a corto y medio plazo. En la actualidad, este sector está viviendo importantes transformaciones derivadas de la expansión del transporte multimodal, la digitalización y las nuevas tecnologías, así como los nuevos requerimientos en las cadenas de suministros, el cambio de los patrones de consumo ligado al aumento del comercio electrónico y la búsqueda de la sostenibilidad energética y climática.

Estas transformaciones han derivado en una demanda de personal cada vez más cualificado y de nuevos perfiles profesionales con formación específica capaces de aplicar las nuevas tecnologías y formas de trabajo del entorno logístico, a la que las estructuras actuales de formación reglada y ocupacional

todavía no han sabido dar respuesta. Además, la Comunidad Autónoma Vasca ocupa una posición privilegiada como nudo de comunicaciones para las actividades logísticas, y cuentan con grandes empresas y equipamientos logísticos.

Por ello, el Departamento de Trabajo y Empleo considera necesario contribuir a la mejora de la cualificación profesional del personal del sector subvencionando un proyecto de mejora de instalaciones formativas y un plan de formación en el ámbito de la logística y el transporte. Este proyecto está basado en un estudio de necesidades formativas realizado por la Cámara de Álava ajustada a la evolución del sector, y debe proponer planes formativos de calidad, alineados con los retos planteados por la transición digital, energético-climática y demográfica.

